# ttipi-ttapa

1992.eko Ekainak 18 | 88. zenbakia | dohain banatzen da



# SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi




# INGELES IKASTAROA

UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere,
**ingeles ikastaroa uztailan**
**goizez 9,15etatik 13,45 orduetara**

**APUNTATZEKO deitu 592006 Tfnora**




# ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

☞ ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA
GRES ETA AZULEJOETAN
☞ AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOTAN

**Juan Arana, 3**
**Tfnoa: (943)**
**61 17 67**
**IRUN**

# ATARIA

## non - zer


**4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

**7** **HONTAZ ETA HARTAZ**

**8** **IRAKURLEAK MINTZO**

**9/37** **HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

Doneztebe eta Saldiasko bestetako koadernilloa

**38** **ERREPORTAIA:** "Zein dira gehien erosten ditugun egunkariak?"

Pello Apezetxea

**40** **KIROLAK:** "Nafarroako hainbat Herri Kirol txapelketa jokatu ziren Elizondon Olinpiadetara begira " .

**42** **MERKATU TTIKIA**



*ttipi-ttapa*

HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Tirada: 5.200 ale**

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** ***ttipi-ttapa*** . **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....
**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)



***ttipi-ttapa*** aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

## Beharrezko telefonoak

**SOS Nafarroa /Urgentziak**...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**
Elizondo....................452367 / 580235
Doneztebe.............................450300
Lesaka.........................637428 / 637336
Leitza.........................510248 / 510573

**KONTSULTAK**
Arizkun..................................453039
Gartzain.................................580451
Oronotz-Mugaire....................592024
Ituren.....................................450183
Sunbilla..................................450283
Goizueta.................................514067
Igantzi....................................637755
Arantza...................................634131
Bera.......................... 630929 / 630036
Etxalar....................................635105
Urdazubi..................................599130

**ANBULATORIOAK**
Irun............................630264/621106

**OSPITALEAK**
Irungo ospitalea......................614600
Nafarroako ospitalea..............102100
SSko urgentzi zerbitzua..........246750
Virgen del Camino
erresidentzia ........... ..............109400
Gurutze Gorria........................226404

**ANBULANTZIAK**
Oitz...........................450242/450342

**DYA**
Lesaka (larrialdiak)..........(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).............171717

**FUNERARIA**
Lesaka....................................637404

**SUHILTZAILEAK**
Oronotz-Mugaire.....................592044

**GARRAIOAK**
Bidasotarra.............................630279
Baztanesa...............................580129
Leitzaran................................515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK**:
Elizondo.................................580730
Lesaka....................................637154
Bera.......................................630261

**ABERIAK:**
Iberduero...................450335/450336

## Botikak

**Ekainaren 20-21ean**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

**Ekainaren 27-28an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

## Kontzertuak

**LESAKA**

FILAO TALDEA
REGGAE - ZOUK...

Ekainaren 28an, gaueko 9,30etan.
Antolatzaile: *ttipi-ttapa*

**LEITZA**

PATAGONIA
+
HERTZAINAK

**Noiz:** Ekainaren 20an, gaueko 10,30etan.
**Non:** Leitzako Herriko Plazan.
**Antolatzaile:** Leitzako Euskaltegia (IKA).

**BERA**

Ekainaren 19an gaueko 10etan, Kultur Etxean, "Zaldibobo" taldearen emanaldia, 'Kultur Zikloa 92' ekitaldien barnean.

## Ikastaroak

**LEITZA**

«GRADUADO ESKOLAR» LARRIENTZAT

Euskara zerbitzuak graduado eskolarrik gabe dauden guztiak, izena eman dezakete ekainaren 22tik 26ra bitarte, goizez 13,30ak arte Leitzako udaletxean.

## Bota bertsoa



**Xabier SILVEIRA**
(Bortzirietako Bertso Eskola)
**Gaia:** Buesa "jaun ohoregarria"
**Doinua:** Semaforoak gorri ta berde

Esan zenuen ikastoletan
euskara soberan dago
esan zenuen inglesa dela
euskara baino gehiago
euskaldunaren konzientzia
aldatu nahiez zeharo
zure hitzari nolabait ere
eman nahiean ordago
Buesa fuck you euskalduna naiz
eta hortaz harro nago

Ileak puntan jarri zizkigun
zimurtu zigun azala
eta irria eta negarra
etorri zitzaizkidala
guri sinistu arazi nahiez
euskara ezer ez dala
horregatikan esan dezagun
euskaldun onak bezala
euskaldun gera eta inglesa
berak ikasi dezala.

# AGENDA

## Gau-pasak

**ZUGARRAMUDI**
**Ekainaren 20an**, Lezeetan, urteroko gau-pasa.
**Musika Taldeak:** Izan, Kanka, Beltzez eta Txakur.

## Bestak

**ALMANDOZ**
**Ekainaren** 17-21era.

**ARIZKUN**
**Ekainaren** 20-24era. Ekainaren 22an, zikiro-jatea izanen da.

**DONEZTEBE**
**Ekainaren** 26-30era. Ikus xehetasunak erdikaldeko koadernilloan.

**ERRATZU**
**Ekainaren** 27-30era. Ikus xehetasunak 33. orrialdean.

**SALDIAS**
**Ekainaren** 20-23era. Ikus xehetasunak erdikaldeko koadernilloan.

## Gastronomia

### AJOARRIERO

**Osagaiak:**
Bakailu desmigatua kilo bat, 6 baratzuri, tipula bat, 6 piper berde, 2 piper txorizero, piper lata bat, 3 patata, olio litro 1/4 eta tomate prejitua.

Ontzi batean olioa berotzen jartzen da; ondoren, tipula eta baratxuriak ongi xehetuak bota eta doratzen utzi. Ondoren piper berdea erantsi. Hau egin eta gero piper morroak eta txorizeroak bota. Gero bakailua ongi xukatua bota lehengoarekin batera ongi rehogatu eta tomatea bota. Ezari ezarian utzi eta bitartean patatak laukitxotan prestatuak prejitu. Egin direnean aintzinekoari erantsi.


Juana Zunzarrenek emana
EZKURRA Jatetxea - DONEZTEBE

## Baserriko feria

**ZERRIKIA**
**•Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.500 pzta. **Zerri gizena** (95-100): 190 pzta/kilo **Zerramak**: 105 -125 pzta./kilo bizirik.

**BEHIKIA**
**•Aretze gizenak**:

**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 510 |
| 1.koa | 480 |
| 2.koa | 450 |

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 520 |
| 1.koa | 480 |
| 2.koa | 450 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

**•Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 360 Pzta /Kg. Kanal.

**•Aretze ttikiak**
(15 egun inguru):
**Nabarrak:** urruxak 12.000 eta idixkoak 20.000 Pzta.
**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 32.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa


MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK
Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA
PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK
Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!
BERA DESINFECCIONES
Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA

Diversey
Europako lehena ostalaritzarako garbiketa produktuetan
Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA

## 11 galdera llabur



**Patxi Etxeberria**

Erremontelari profesionala

**Erremontea, afizioa ala lanbidea?** Lanbidea, baina afizioa barne

**Bizitzeko adina ala aberasteko?** Gaur egun bizitzeko, baina gora noaie.

**Erremontari hoberenak gipuzkoarrak ala nafarrak?** Betidanik Nafarroakoak izan dira. Gaur egun atzelari hoberena Mujika (Billabonakoa) eta aurrelari hoberena Elizalde.

**Erremontean, diru jokoa ala ez?** Nahiago dut dirua jokatu gabe, baina beharrezkoa da.

**Futbola ala pilota?** Lehen futbola, orain pilota.

**Sakea ala rebotea?** Rebotea ikusgarriagoa da.

**Poteoa ala musean?** Musean tragoa irabazi.

**Garagardoa ala kubata?** Garagardoa gaseosakin.

**Denbora librean, kirola egin ala telebista ikusi?** Xakean jokatu.

**Herriko ala hiriko giroa?** Igual zait, errax moldatzen naiz.

**Benidor ala Kuba?** Benidor kotxean; Kuba ez, abioiak izitzen nau.

## Zinema

**Bajo otra bandera**
Bruno Barreto
EEBB - 1991



Estatu Batuak aspalditik bereganatu nahi izan dute Puerto Rico; 51 garren estatua deituz, batzuetan ia ofizialki.

Erabiltzen den diru bakarra ere dolar amerikanoa da. Eurek berriz latinoak direla azalduz defendatzen dute euren egoera; batzuetan Espainiari begira eta bertzetan Estatu Batuei.

Bertako nazionalismoari buruz hagitz gutti jakin izan da; indartzen hasi den aldiro Estatu Batuek desegiten dutelako.

Filma honetan lehen aldiz agertzen da bertako talde independentista armatu bateko kide batzuen gora beherak edota infiltrazio baten ondoriozko erahiltzeak.

Berezi xamarra dela erran genezake filma hau Puerto Ricon egina baita, eta hagitz ongi anbientatua batez ere ohitura aldetik, gauza hoiek ongi egiten bait daki Bruno Barreto brasildar zuzendariak. Bere herrialdean lana egiteko diru laguntzarik izaki ez eta ipar amerikarrak errekuperatua. Latino Kutsuko zine, musika eta abar; azken garai honetan ongi funtzionatzen dutelako kontsumo merkatuan.

Nahiko nabarmenak dira ipar amerikar zinegileen eskema eta klabe bereganatzileak.

MARIANO


**ZIZKA OSTATUA**
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - **BERA**

**TXOKO erretegia**
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA KULTUR ETXEETAKO LIBURUTEGIAK OSATZEKO BEHAR DIREN BILDUMAK
AMETS LIBURUAK
☎ 63 12 67 - **BERA**



**EUSKALDUNA JATETXEA**
Tfnoa. 63 03 92
**BERA**

## Zigor latzak hamabi gazteei 89ko Akelarrea dela eta

### Istiluak izan ziren 300 gazte eta guardia zibilen artean

Zigor latzak ezarri dizkie epaileak 1989ko Akelarrean gertakarien ondotik atxilotuak izan ziren 12 gazteei. Sententziak frogatutzak hartzen du gazte hauek Ibardingo aduana eta Berako kuartela harrikatu zutela kalte ugari sortuz, nahiz eta bertze 300 gazte beraiekin zeudela onartu. Sententziaren arabera, 7 gaztek urte beteko zigorra jaso dute «desorden publikoagatik» eta bertze lauk 2 hilabeteko zigorra delitu beragatik, garai hartan 18 urtetik behiti bait zituzten. Bertze bi gazte, bi hilabetetako zigorra eta 100.000 pezeta ordaintzera kondenatu dituzte, atxilotzerakoan "erresistentzia" paratzeagatik.

### Afaria Jamotenean

Elkarteen arteko harremana sendotzeko afaria egin zen hilaren 6an Berako Jamotenean. Bertan, Igantzi, Etxalar, Bera, Urruña, Sara eta Biriatuko 50 bat lagun bildu ziren.



BITTORI

## 175 milioi izanen dira Bera Behobia bidea moldatzeko



KARMELE

Nafarroako Gobernuak 174,9 milioi emanen ditu N-121-A errepidean, Beratik Behobiaraino doaien bidean zola moldatzeko.

Lan hauek hiru hilabetez egin beharko dira eta proiektuaren arabera, guzira 9 kilometro inguru konponduko dira. Asfalto bi kapa botako dira, bata 6 zm. lodierakoa eta bertzea 4koa. Bertatik pasatzen direnak, ongi aski dakitenez, Karretera horretan zenbait zati hagitz gaizki daude, batez ere Villanueva ostatua eta Endarlatsa artean.

### 5.734 ibilgailu egunero

Gaur egun dauden azken datuek diotenez, karretera honetatik egunero 5.734 ibilgailu pasatzen dira, bataz bertze.

Gainera, kontutan hartu behar da kopuru honetatik % 22a inguru, ibilgailu astunak direla, kamioiak eta horrelakoak.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:
- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
**Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:
- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## BOXEOA SALDIASKO BESTETAN?

Saldiastik ez dugu askotan idazten baina oraingo honetan egokia iruditu zaigu zerbait idaztea. Bestak heldu zaizkigu: aurreratu ere egin ditugu aurten hobe beharrez.

Ikusi izango duzue bestetako programa, ezta? Ba ikusi ez baduzue, aholkatzen dizuegu larunbatean zer ezartzen duen begiratzea.

Benetan aukera bakarra eta berezia da egun horretarako. Sinisteko nahiko zaila bada ere, boxeoa!!! izanen da ikuskizun bezala. Gu ere zur eta lur geratu ginen Udalak bestetako prestatu zutena entzutean. Gauzak aldatzen ahaleginak egin genituen baina ilusio hau ez genien kendu, gure desio sutsuena boxeoaren alde ez bazen ere; egia esateko ez genuen behar denik izan hori kentzeko (bileran ginen guztiak neskak bait ginen).

Badakizue, okasio hau ez galdu; bidea txarra delako aitzakia alde batera utzi eta anima zaitezte!!!



SALDIASKO
neska gazteak

**Oharra**

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.


**Masaia eta bizkortze ariketak**
**Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)**
Astelehenetik ortziralera, 15,30etatik 19,30etara
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**
**Asteazken arratsaldeak etxetara bisita egiteko ehunak izanen dira**

**ARMUA Jatetxea**
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131 - **URDAZUBI**

**EKAITZA OSTATUA**
*Altzate - BERA*

**OKANE**
**Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...**
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

MARI LUZ SPORT
ESTETIKA SOLARIUM
**GIMNASILEKUA**
Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - **BERA**




• Diskoak,
• Metodoak,
• Musika-Tresnak,
• HI-FI soinua,
• Soinu Profesionala,
• Ekipoen Alokairua...

BERA

# Altzate karrikan barrena tiroka ibili ondoren bere burua hil zuen guardiazibil batek

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Gertakaria hilaren 9an, goizaldeko 5etan hasi zen, 35 urtetako Jose Simon Zarzoso guardiazibila Berako kuarteletik cetmea eta pistola eskutan zuela atera zenean. Altzate karrikara ailegatzerakoan, parean suertatu zitzaion denari tiroka hasi zen: Errekalde eta Eltzaurdia ostatuetan, panaderian, Goya, Iglesias, Erosle eta Agara dendetan eta zenbait kotxetan nabari ziren tiro arrastoak biharamonean, guztira 80 tirotik goiti bota bait zituen. Azkenean, bi zakur tiroz hil eta ondoren bere buruari tiro eman zion bizia galduz. Erran beharrik ez dago, inguruko bizilagunak beldurtuta ernatu zirela. Batzuk ziotenez, "*jakina zen gizon horrek arazo sikolojikoak zituela eta ezin dugu ulertu armei inguratzea nola uzten zioten*".

**Pleno bereziak gertaera kondenatu**

Egun berean, Udalak kalteak izan dituzten jendearekin arratsaldeko 7etan egindako pleno berezian, ahobatez kondenatu zen gertaera hau, Berako kuarteleko mando nagusien ardura azpimarratuz, lehendik ere arazo sikolojikoak zituen pertsona bati armak eskuratzeko aukera emateagatik .

Udal ordezkarientzat ekintza hau "*ez da aislatua, Euskalerriak bizi dituen ugarietatik bat baizik*". Udalak, era berean, indemnizazioak eskatuko ditu beharrezko leku guzietan eta «akusazio partikular» bezala agertuko da egon daitezkeen juizioetan. Baita ere, horrelako gertaerak ez errepikatzeko "*polizi guardia zibilak Bera eta Euskalerritik aldegitea*" exijituko du.



Botatako tiroek arrasto nabarmenak utzi zituzten Altzaten — AITOR



Pleno berezia burutu zen Herriko Etxean kaltetuekin — JOXE

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA
* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu
Itzea 4, behea – BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

## LESAKA

# Kultur Astea ospatu zuen San Fermin elkarteak

### Hilaren 7tik 14ra burututako ekitaldiei, Jubilatuaren egunarekin eman zieten bukaera

AITOR AROZENA

Hilaren 7an hasita 14a bitarte burutu du San Fermin jubilatu eta pentsionista elkarteak bere Aste Kulturala.

Aste osoan zehar ekitaldi aunitz egin ondoren, larunbatean dantza soltuko txapelketan 15 bikotek parte hartu zuten eta igandean Jubilatuaren Egunarekin bukatutzat eman zuten urtero ospatzen duten Kultur Aste hau. Tartean lehiaketa aunitz jokatu zituzten. Astelehenean, bolo txapelketa Joaquin Rubiok irabazi zuen, rana txapelketan Jose Antonio Anzizar izan zen garaile eta tokan Jose Garcia. Asteartean jokatutako V. mus txapelketan, Santiago Aiestaran eta Jose Etxartek Bonifacio Telletxea eta Mariano Errazkini gainditu zieten finalean. Plaza zaharretik aterita, Nabaz eta Otsango auzoetatik barrena pasatuz, berriz Plaza Zaharrean bukatzen zen ibilaldi erregulatuan, Joaquina Goñi eta Jose Mª Maritxalarrentzat izan zen lehen saria, Isabel Zubieta eta eta Juan Mazizior bigarren gelditu z.



***Rafa Maritxalar** korrikalari lesakarrak Nafarroako txapelketa absolutoa lortu zuen 800 metrotako laisterketan eta bigarren postua 1.500 metrotan.*

Txistorrada lehiaketa ortziralean egin zuten eta igandean Koxkontan egindako bazkariaren ondotik sariak banatu zituzten.

### Andra Mari...

asiloko langile despedituak itxialdia burutu zuten hilabete hasieran Herriko Etxean. Hau idazteko momentuan, mozio bat aurkeztu behar zuten azken plenora, etxez etxe bildutako 500 sinaduren laguntzaz. Bitartean, asiloaren egoera jasotzen duen informe bat ere kaleratu dute.

## ttipi-flash

❒ **San Ferminetarako** kartel lehiaketan, Javier Igoak lortu zuen lehen saria eta Garbiñe Larraldek bigarrena. Programaren portadarako egindakoan berriz, lehen saria Ana Agirretxek lortu zuen eta bigarrena Javier Igoak.

❒ **Bortziriietako** euskaltegiari udan zehar Irain eskolako 4 gela eta frontoia erabiltzeko baimenik ez zion eman Udalak.

❒ **Egur loteak** eskualdeko herriekin batera saltzen hasiko dira datorren urtetik 1997a bitarte. Horrela eginez gero, metro kubiko bakoitzeko 500 pezetako dirulaguntza jaso daiteke.

❒ **Xabier Silveirak** irabazi zuen Nafarroako Eskolarteko bapateko bertsolari txapelketaren finala, Euskalerrikoan parte hartzeko txartela lortuz.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ONIN Agentzia
Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA
- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

KAMINERO
OSTATUA
Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

## ETXALAR

# Kultur Egunak giro polita sortuz doaz

PELLO APEZETXEA

Bortziriak-Baztan-Malerrekako I. Gasna lehiaketak 29 gasnagile bildu zituen: Bortzirietako 16, Baztango 6, Malerrekatik 3, Sunbillatik 2, eta Legasa eta Urdazubitik bana. Hiru sarituak Baztandarrak: Elizondoko Mª Jesus Larretxea, Zigako Juanita Mendiburu eta Amaiurko Juan Aleman.

Plazako herri bazkarira 105 bazkaldar hurbildu ziren. Arozena eta Elizagoien bertsolariek, txalapartak eta Kukubiltxo taldeak bazkalordua eta bazkalondoa primeran girotu zituzten. Bazkalaintzinean gure entzumena gozatzeko aukera eman zigun Lesakako koralak.





### ttipi-flash

❒ **Autoen** rebisionea hurbilean egiteko inguruko Udal zenbaitek bezala, Etxalarkoak ere onartu egin du Nafarroako Gobernuari eskaria igortzea, erran nahi baita, Iruñera joan beharrean Bidasoa inguruko tailerren batetan rebisionea egin ahal izatea.

❒ **Nafarroako** Gobernuak berriki hartutako erabakien arabera, ez behirik ez ahuntzik ez da menditan ibiltzen ahal. Ibiltzen segituz gero, Udalak harrapatu eta ekarriko ditu.

❒ **Zahar Etxeko** lana Marta Maiak hartu du. Gemak utzi ondoren, Marta bakarrik izan da zaharren zainketa lan hori egiteko prest agertu dena.

BOTXO ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

ALICIA
JANARIDENDA
Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
BERA

ALKARTETXEA
JATETXEA
Alicia eta Carmenek zuzendua
Antoiu 26 - Tfnoa: 627622
LESAKA

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

ARRANO

OSTATUA
Legarrea – LESAKA

KOXKONTA

Sagardotegia
Erretegia
Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria 67 – Tfnoa:637264

## IGANTZI

# Herriko 3 kirolari joanen dira Bartzelonako Olinpiadetara

Sagarzazu eta Txoperena trinketean palan eta eskuz eta Eugi gaztea lasto altxatzen

OSKAR TXOPERENA

Ez da bromatakoa Igantzi bezalako herri ttiki batetatik 3 lagun Bartzelonako Olinpiadak jokatzera joatea: Mikel Sagarzazu, Mitxel Txoperena eta Eduardo Eugi. Lehendabizikoa Irunen bizi bada ere, harreman hestuak ditu Igantzirekin, ama bertakoa baitu. Paletaz jokatuko du honek trinetean. Mitxel Txoperena eskuz binakako trinketeko ordezkaria izanen da eta azkenean, Eduardo Eugi, Nafarroako txapelketan lehendabiziko geratu zena lasto altxatzeko proban, Bartzelonarako postua irabaziz. Zorionak eta suerte haundia izan dezazuela.



*Mitxel Txoperena*



*Eduardo Eugi*



*Mikel Sagarzazu*

### Biltokiko pala txapelketa

Kirolarekin jarraituz, irekita dago pala txapelketarako izen emateko epea. Biltokin dago izenen zerrenda eta jokatu nahi baduzu, lehen baitlehen eman ezazu izena. Bi maila daude gainera. Beraz, denentzat badago lekua.

### Eskolako irtenaldia

Ekainaren 19an izanen da urteroko eskola ikastaro bukaerako irtenaldia. Iaz bezala, Gasteizeko igerilekuetara joanen dira haur eta gurasoak. Ongi pasa.

### Okerrak zuzenduz

Aintzineko *ttipi-ttapa*n Udaletxeko bulegoak udan arratsaldez itxita egonen zirela erran genuenean, oker genbiltzan, larunbat arratsaldetan bakarrik egonen baitira itxita. Aste tartean orain arte bezala.

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

LAINO
HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

GOZOTEGI - JAIONE
Itzea 3, 630786 - BERA


KATTU
OSTATUA
JATETXEA
- Karta
- Eguneko menua
Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA

LORA DENDA TXIRULA Bitiria LESAKA
Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ARANTZA

# Herriko ehiza-kotoa bertze 10 urtetarako berritu da

Ehiza legeak zuzen errespetatzea nahiko luke Udalak

JON LARRETXEA

Kotoa «Usoa» ehiza elkarteak arrendatu du eta errenta, 575.000 pzta. izanen da Ekaitza alderako eta 355.000 pzta., berriz, Baratxarrendako. Gainontzeko terrenoen alokairua 25.000 pzta. da. Honez gainera ehiztari bakoitzak auzolan egun bat bete beharko du, bideak eta abar zaintzeko.

**10 urtez luza daiteke kontratoa**

Diru honi urtero biziaren igoera gehituko zaio eta bertze 10 urtez ere kontratoa luzatu liteke, bi aldetako inork salaketarik ez eginez gero. Teniente alkateak erran digunez, "*beharbada subastara ateraz diru gehiago atera zitekeen, hala ere konsiderazio bat izango dugu bertako ehiztariekin, heurek izan dezaten ehiza egiteko aukera*". "*Baita ere* –jarraitzen du alkate-ordeak– *espero dugu konsiderazio hau baloratzea eta ehiza legeak zuzen errespetatzea: mendiak garbi kontuz, hegazti babestuak errespetatuz etabar...*".

Horrela izan dedila guztion onerako.



ARTXIBOA

*Udalak ehiza-kotoak banatu ditu bertako ehiztariak kontutan hartuz*

## ttipi-flash

❒ **Aparkamendu** arazoak direla eta Udalak Bidasotarra autobus entrepresari asteburuetan autobusak herriko plazatik atera ditzala eskatu dio.

❒ **Udalak,** azken aldian gertatu diren ekaitzak pistetan egin dituzten kalteak direla eta urgentzizko idatziz laguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

❒ **Uztailan** euskera ikastaroa izanen da herrian IKAren eskutik. Ikastaroa eskoletan izanen da, EGA azterketa prestatzeko eta barnetegi moduan.

ATERPE
jatetxea
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo guztietako mobleak
ERAKUSKETAK:
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 637034 - LESAKA
Larunbat arratsaldetan zabalik

MANOLO TABERNA
Edari Banatzailea
Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina
Tfnoa: 63 10 27 - BERA

## SARA

# Zertan da euskarazko erakaskuntza Saran?

Aurtengoan herriko hamar lagun eta Ainhoako bertze bat bildu dira Euskaltegian

OLHAIN ELKARTEA

Urrian hasirik, Sarako 10 bat lagun eta Ainhoako bertze mutiko bat aritzen dira euskaraz alfabetatu nahian Euskaltegiaren ikastaroan. Astean bitan biltzen dira arratseko 8etatik 11etarat Omordiako salan eta Gazteen Etxean, ez bakarrik lanean aritzeko, baizik eta umore onean ahal bezain ongi pasatzeko. Noizbehinka Zugarramurdiko euskaltegiko lagunekin elkartzen dira eta batera klasea emaiten dute eta tarteka ere afariak eta berenduak antolatzen dituzte. Beraien ustez, "*aski inportantea da eskuaraz bizitzea eta penagarria da 2.000 biztanleko herri batean hamar lagun bertzerik ez izatea, euskaraz alfabetatzen ari direnak*". "*Espero dugu* –erraiten dute– *heldu den urtekotz sala inguruetan kuxkuxeatzen ibiltzen direnak beldurrik gabe ikusterat agertuko direla*".



*Istilarte Auzoa* ARTXIBOA

### Kortsikarat bidaia

Apirilaren 23an, 60 saratar (rugby eskola eta dantzariak) Kortsikako bidea hartu zuten eta aste zoragarri bat gozatu. Heltzean, Santa Mª Poghjuko lagunak ongi etorria egin zioten beren etxeetan aterpea eskeiniz. Rugbylari gazteak auzo herri baten aurka jokatu ziren eta Zazpiak Bat elkarteko kideek azken egunean Euskadiko dantzak eskeini zituzten. Erran gabe doa hango "Muru Bascu"k (errebotea) desafio haundiak ikusi dituela eta entzun dugunez ez dira batere okerrak pilotan. Han ere kantuak toki premiatsua du, beraz gau pasek izan ahal dute mami gure eta haien abestiak lagun.

### Saratarrei deia

Dantzako gauzak dituztenek fabore haundia eginen zenuten dantzako neskatxei (Xofi, Odile, Solange eta Laurence) abisatzea. Milesker.


MENDI HOTELA



DONAMARIAKO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

## BEINTZA-LABAIEN

# Zaharrak nagusi binakako aizkolari txapelketan

Jose Luis eta Marcos Telletxea anaiek burutu zuten lehendabiziko egin beharreko lana

PATXI OTXANDORENA

Maiatzaren 17an burutu zen giro ederrean eta jende askoren aurrean herriko binakako aizkolari txapelketa. Bertan, zaharrek erakutsi zuten nagusitasuna, Jose Luis eta Marcos Telletxea anaiak izan bait ziren 60 ontzako lau enborrak eta 54 ontzako ontzako sei enborrak mozten denbora gutxien pasatu zutenak.

Bigarrenak, Jose Jacinto eta Javier Etxekolanea izan ziren eta hirugarrenak, Jesus Etxeberria eta Pello Telletxea.

### Urradi menditik Labaingo plazara...

oinez edo kotxez bizkorrago etortzen den jakiteko apostua burutu zen hilaren 6an. Oinezkoak, ehiztari txabolatik aterita 30 segundu guttiago behar izan zituen plazara ailegatzeko, hiru kilometro t'erdi pistaz eta hamar kilometro karreteraz egin zuten bi kotxeek baino.

Orain artean izandako eztabaidak argitu ziren horrela.

### EPA ikastaroak...

bukatu berriak dira. Bertan, marketeria eta pelukeria kurtsilloak eman dira. Hamaika-hamabi lagun inguru zeuden apuntatuta eta gustora gelditu dira ikasitakoarekin.



ZUBIETAKO UDALA

ZUBIETAKO OSTATUAREN KONKURTSOA

Zubietako Herriko Ostatua konkurtsora ateratzen da: Ostatu-jatetxe eta logelak.
8 urtetarako kontratua eginen da, bete behar diren baldintzak eta dokumentazioa Udaletxeko idazkaritzan ikus daitezke.
Aurkezteko, konkurtsoan parte hartzeko, alegia, 125.000 pztako fidantza sartu behar da, C.A.N Doneztebeko 110.000407.6 zenbakiko kontu korrontean.
Epea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertuz gero 10 egunen burura bukatuko da.

Nafarroako Gobernuak, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bi ikerketa burutuko ditu aldiberean ekainaren bigarren hamabostaldian Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako herrietan. Alde batetik, *Euskararen Egoerari Buruzko Ikerketa Soziolinguistikoa* eta bestetik, *Ttipi-Ttapa Zonaldeko Informazio Aldizkaria*ri buruzko merkatu ikerketa eta marketing plana.

Aipatu ikerketa, *Area-2.000* eta *Soziologi Lantegia* enpresek burutuko dute: lehenak proiektuaren koordinazio globala eta marketing planari dagokionez eta bigarrenak, soziologi azterketa lanari dagokionez.

Ekainaren 15etik uztailaren 5a bitarte, inkestatzaileak etxez-etxe ibiliko dira, behar bezala kreditatuak, ikerketaren galdetegia osatzeko.

Horrela bada, ikerketa hauek modu egokian burutu ahal izateko, guzion laguntza eskertzekoa da.

## DONEZTEBE

# 1.500 lagun bildu zirenNafarroako Odol Emaileen Egunean

Bertzalde, Etxeberria izendatu zuten Euskalerriko erremonte txapelketaren jokalari onena



***Nafarroako Odol emaileen besta***

*Eguraldiak lagundu ez arren 1.500 bat lagun bildu ziren ekainaren 7an Donezteben. Bertan, Doneztebeko Salvador Arozena, Rafael Perez kaputxinoa eta Angel Velasco izan ziren elkarteak aukeratutako pertsonak urrezko dominak jasotzeko, 20 litro odol ematera iritsi baitira.*

*Bearzana pilotalekuan egin beharreko ospakizunak frontoi estalian eta Bordatxon burutu ziren. Javier Sadaba, Ecuadorren dagoen apeza izan zen mezaren buru. Honetaz gain, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilaria den Calixto Ayesa izan zen.*



***Patxi Etxeberria ia ia txapeldun Euskalerriko remonte txapelketan***

*Patxi Etxeberria doneztebarra eta Lekunberri erremontelariek 40-39 galdu zuten Lezea eta Eizagirreren kontra joan den ekainaren 6an Euskalerriko erremonte txapelketaren finalean.*

*Berdintasun eta emozioz beteriko partiduan 39 eta 36 irabazten joan ondoren, azkenean galdu egin zuten. Dena den, 26 urte dituen Patxik bi sari irabazi zituen. Bata txapelketako pilotari onenari emandakoa eta bertzea Nafarroako hoberenari. Erran behar da, Doneztebeko Koteto Ezkurrak ere txapelketa ona egin zuela eta orain 18 urte dituen gazte honek etorkizuna ona duela.*

***Arkupeak elkarteak** 85 urtetik 90 urte arteko 200 lagunetik goitiri beraien plaka eta lore erramua eman zieten maiatzaren 30ean ospatu zen bestan.*

*Ekainaren 25ean, Arrateko santuariora eginen dute hurrengo bidaia Arkupeak elkartekoek. Goizeko 11etan meza adituko dute eta gero Zestoan bazkaria. Arratsaldean dantzaldia eta ilunabarreko 8,15etan etxerako bidea hartuko dute. Bidaiaren kosto osoa 2.500 pezeta.*

*Bertzalde Nafarroako Gobernuak 11 milioitako dirulaguntza ematea onartu du Doneztebeko Zahar Etxea egiteko.*



Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE





ARROPA ETA OPARI DENDA
Tfnoa: 451540
Mercaderes 9
DONEZTEBE



SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

ASKIN OSTATUA
Bokadillo eta Plater konbinatuak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE



ZALDUA

## *Doneztebar eta bisitari guztiei, agur*

Urte bat gehiago, gure San Pedro bihotzeko bestak, eta zuei zuzentzeko ohorea dagokit.

Urteroko gogo alaiarekin eta eguneroko zereginetan atseden ttiki bat hartu bidenabar, presta gaitezen bestak ospatzeko, egunerokotasuna egun batzuz alde batetara utziaz eta San Pedro bestei ongi etorria emanaz (Doneztebeko Bestei Doneztebar Guzion Bestei). Beharbada ez gara hemen egonen garen guziak baina dudarik gabe, bai garela gauden guziak eta horrela, haur, gazte eta helduok, denok batera, Besta Batzordeak pestatu dituen ospakizunak gogotik aprobetxatuko ditugi, karrikak umore alaiaz betez, guk geuk eta ingurukoak ongi pasatzeko.

Nere betiko nahia, baino batez ere besta hauetarako, egun batzuz gure elkarbizitza oztopatzen duen guztia baztertu eta ahaztea da. Utzi behar ditugu atsedenaldian arazo haundi eta ttikiak, aldi txarrak, eta baita ere, gure izateko eta egiteko eratan diren ezberdintasunak.

Alaitasun sanoa eta elkar errespetua egun batzuren denominadore komuna izan dadin, non, adina, irudi, eritzi etabarren bereizketarik gabe, Doneztebekoak sentitzeko baliogarri izan daitezen, gu geuri eta bertzeei erakutsi nahi diegu gure nortasuna herria bezala zabal dezakegula, momentu alai edo tristerako, lana edo atsedenarako, hau da, herri dinamiko bat, aurrera jarraitzeko gogoarekin garela, nahiz eta ibili behar den bidea oso latza izan.

Kanpoan dauden Doneztebar guztiei bihotzeko agur beroa bidaliz, eta hemen zaudetenei oroitaraziz Herriko Etxera agertzen ahal zaretela zuen arazoekin, saiatuko garelakoz aterabidak aurkitzen, hortarako baigaude, nahiz eta beti nahi dena ez lortu.

Udalbatzaren izenean, eta nerean ere.

BESTA ZORIONTSUAK ETA GORA SAN PEDRO
Zuen lagun eta alkatea
**MIGUEL SAN MIGUEL AZPIROZ**



ZALDUA



Doneztebeko Udalak besta onak opa dizkizue Doneztebar guziei

# DONEZTEBE

**Ekainak 26, 27, 28, 29 eta 30**


AGESTA

**Ortzirala 26:**

**8etan** Herriko Etxetik botako dira besten hasiera adierazten duten altxaferuak; Segidan, herriko Txistulariak eta Bear-Zana txaranga ibiliko dira karrikaz-karrika. **Gauez** dantzaldia DRINDOTS taldearekin.

**ERLOJU eta BITXIDENDA**
Kalash
Merkatu karrika - **DONEZTEBE**

**AROZENA Ostatua**
**Besta bezperan:** Baztan zopa
Txuri ta beltzak
Gisadoa
Euzki Eder 3, Tfnoa: 45 04 43 - DONEZTEBE


**AMEZTIA**
**Jatetxea**
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf:450028 - DONEZTEBE

***SHANTI***
***Ostatua***
Ameztia 16, Tfnoa: 45 00 15 - DONEZTEBE

**BLAS**
LIBURUDENDA


**Parrokia 1, Tfnoa: 450269**
**DONEZTEBE**

**IBARROLA**
HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA
Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**

ELEKTRONIKA RODRI
ELEKTROGAILUAK
TB - BIDEOAK - SOINUA
expert
Parrokia 16, Tfnoa: 45 08 03 - DONEZTEBE

Taxerna
Parrokia Kalea 21
Doneztebe.




AGESTA

**Larunbata 27:**

**8etan** Entzierrua; **9etan** Diana Txarangarekin; **11,30etan** "XV. Malerrekako Itzulia" **12etan** Erraldoiak eta Buruhaundiak **1etan** eta **6etan** zezenttoak; **7,30etan** Eskupilota partiduak; **Arratsalde eta gauez** dantzaldia LOS CLAN taldearekin.

12
Ostatua
Ameztia 12
Tfnoa: 45 01 53
DONEZTEBE

LANDA ETXEA
AUTOZERBITZUA - JANARIAK
Santa Lucia 4, Tfnoa: 45 00 33 DONEZTEBE

INES MARI
ILEAPAINDEGIA
TINTEAK
ILE-KIXKURTZEAK
APAINKETAK
Ilearendako produktu bereziak
Ameztia z/g, Tfnoa: 450163
DONEZTEBE

TELLETXEA
ALTZARIAK
Moble erakusketa haundia
*Zur trinkoa erabiliz*
*Neurrira egindakoak*
*Tapizeriak*
Rosa Seminario z/g
Tfnoa: 45 02 58
DONEZTEBE

FZ
FOTO ZALDUA
ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat
ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364
MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

DENDA
BERRI
AUTOZERBITZUA
Ameztia 5 Tfnoa: 450383
DONEZTEBE

**Igandea 28:**

**8etan** Entzierrua; **9etan** Txaranga karrikaz karrika;**12,30etan** Zallako Txistulari Bandaren kontzertua Elizako atarian; **12,30etan** Erraldoi eta Buruhaundien itzulia; **1etan** Zezenttoak; **6etan** Herri-Kirolak Bear-Zana fron-



AGESTA

VOLKSWAGEN - AUDI
ZERBITZU OFIZIALA

Audi

# Sampi Aragón






Tfnoa: 45 03 54 DONEZTEBE

Tfnoa: 58 05 93 ELIZONDO

TAILERRAK: LEITZAKO BIDEAN (Doneztebe)



ZALDUA

toian: Barcelona 92 Olinpiadetarako Nafarroako Selekzioaren aurkezpena; **7,30etan** Zezenttoak; **Arratsalde eta gauez** dantzaldiaMONTEBLANCOS taldearekin.

titare



ARROPAK

*Gazteendako punta puntako moda*

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

norfres

CONGELADOS DEL NORTE, S.A.

*Leitzarako karretera (Industrialdea)*
*Telefonoa: (948) 45 08 22 Faxa (948) 45 07 07*
*31740 Doneztebe (Nafarroa)*

STIHL
JOSE LUIS SAN MIGUEL
TAILERRA
DONEZTEBE

Zure tailerra

Rosa
Seminario 4
Tfnoa:
45 01 15
DONEZTEBE

MIGELENA ANAIAK

**ERLOJU eta BITXI DENDA**
**Sukalde eta etxeko tresnak**

Ameztia z/g, 45 01 26 - DONEZTEBE


ZALDUA

**Astelehena 29:**
**San Pedro Eguna**

**8etan** Zallako Txistulari Banda karrikaz karrika; **9etan** Entzierrua; **11etan** San Pedroren ohoretan Meza Nagusia; ondotik Dantzari Ttikien saioa eta bukatzeko Hameketakoa

**EL CAFE Ostatua**
Pintxoetan espezialitatea
Bokadilloak
Parrokia 3, Tfnoa: 45 03 18 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia
*Plater konbinatuak*
Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

MAYLIN
Frito eta pintxo beroetan espezialitatea
Parrokia 15, Tfnoa: 45 03 66 - DONEZTEBE

LAKANBRA MOTOAK
SALMENTA ETA KONPONKETA
CROSS–TRIAL–ENDURO
MENDI BIZIKLETAK
Parrokia 18, Tfnoa: 45 00 82 - DONEZTEBE

DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA
*Euskara dugu gure hizkuntza*
*zaharra eta garbia*
*gure arbasoek menderik mende*
*denon etxean utzia.*
*Gure herrian bertzen gainetik*
*ikus dezan eguzkia*
*Malerrekan baduzu eta*
*bisita Euskaltegia.*
Tfnoa: 451555
San Miguel Auzoa, DONEZTEBE
ika Ikastari

EDERKI
TALLERRA
Peugeot Agente Ofiziala
24 orduz grua zerbitzua
Leitzarako bidean
Tfnoa. 450525 / 450443
DONEZTEBE



Herriko Etxean; **5,30etan** Haurrendako Jokoak Behar Zanan; **7,30etan** zezenttoak;

**arratsalde eta gauez** dantzaldia LA GUAGUA taldearekin. **Goizeko 4etan** Sokamuturra.

HONORIO TABERNA
EMAKUME, GIZONEZKO ETA HAUR ARROPEN BOUTIQUE
Merkatariak 29, Tfnoa: 45 01 09 DONEZTEBE

ALSUA PERFUMERIA
Santa Lucia 11, Tfnoa: 45 02 36 DONEZTEBE

JUAN J. PIKABEA
ARROPA KONFEKZIOAK
GIZONEZKOENDAKO JOSTUNGINTZA
Ameztia z/g, Tfnoa: 45 01 63 DONEZTEBE

KLINIKA DENTALA
J.L. IRURITA eta M.B. RUBIO Doktoreak
Rosa Seminario 7, Tfnoa: 45 02 67 - DONEZTEBE

ALBAITERITZA ZENTRU TEKNIKOA
Karrika Nagusia 1, Tfnoa: 45 05 91 - DONEZTEBE

ANAIAK
TITI BAR
Ameztia 7, Tfnoa: 45 02 71 - DONEZTEBE

MAYLIN SPORT
KIROL ARTIKULUAK ETA GAZTE MODA
Parrokia 15, Tfnoa: 45 02 57 DONEZTEBE

MARTIN HARATEGIA
BERTAKO ARETXIAK
Parrokia 1, Tfnoa: 45 01 60 - DONEZTEBE

**Asteartea 30:**

**8etan** entzierrua; **9etan** Txaranga karrikaz karrika; **10,30etan** Plater Tiroketa Kaxernan; **11etatik 1etara** haurrentzat KARTS "Pista Libre" Bear-Zana pilotalekuan; **1etan** Zezenttoak; **2,30etan** Herri-Bazkaria; **4etatik 7etara** PISTA LI-


ZALDUA

DANIEL ELORZA
Harategia
Merkatarien karrika 14, Tfnoa: 45 00 40 - DONEZTEBE

AGUSTIN SAN MIGUEL
Ate metaliko baskulanteak eta korrederak
Baranda eta itxiturak
Metalezko estrukturak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

DONEZTEBEKO
BOTIKA
Merkatarien karrika 1, Tfnoa: 45 00 92 - DONEZTEBE

IBAIONDOA
OSTATUA
Intzakardi, Tfnoa: 45 01 23 DONEZTEBE

Amaya
Lurrindenda
Oparidenda
Apaindegiak
BESTA ZORIONTSUAK
PASA ITZAZUE

Lurrindenda: Lurrin eta perfume markarik hoberenak
Kosmetikan, garantia osoko kremak dauzkagu, aurpegirako, gorputzerako, eguzkirako...
Apaindegia: Gorputz eta aurpegirako tratamenduak: Zelulitisa, larru-eroriak, ilekentzeak, aurpegiaren apainketak... tinteak, betileak kixkurtzea, Solarium-a
Opariak: Bitxitegia, jazteko eta bidaietarako boltsuak, inportazio artikuluak (China, India, Mexiko...)
CAMEL TROPHIren Banatzaile Ofizialak gara
Baztan-Bidasoalderako (erlojuak, motxilak...)
Ameztia karrika z/g – Tfnoa 450163 – DONEZTEBE


ZALDUA

BRE Jolas Parkea; **7etan** Zezenttoak; **Arratsalde eta gauez** dantzaldia SALDUBA taldearekin; **Goizeko 4etan** Txokolatada eta Besten bukaera.

**TABERNA ETXEA**

EMAKUME, GIZON ETA HAURREN ARROPA KONFEKZIOA
GORTINAK ETA KARRILAK

Merkatarien karrika 12, Tfnoak: 45 00 07 - DONEZTEBE

**SALDIAS HARATEGIA**

**Bertako haragi freskoetan espezializatuak**

ZERBITZUA HOBETZEKO ASMOAREKIN,
LAISTER, LOKAL BERRI BATETAN
AURKITUKO GAITUZUE

Karrika Nagusia 21 – Tfnoa: 45 01 91 – DONEZTEBE

**SOROZABAL GOXOTEGIA**

Karrika Nagusia 10
Tfnoa: 45 00 87
DONEZTEBE



**BAZTAN**
**ALTZARIAK**
zurgindegia
121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak



ZALDUA

ELKAR AUTO ESKOLA

Tfnoa: 580077 ELIZONDO • Tfnoa: 637870 LESAKA

SEGUROS BILBAO

Karrika Nagusia 22, Tfnoa: 451610 DONEZTEBE

GARANTIA OSOKO ASEGUROAK

AEGON • M.N.A. • VITALICIO

A.M. • UNIAL • AMAYA

VASCO NAVARRA • LA BELLE • LLOYD

Mª SOL ITURRIA RUIZ

AUTOZERBITZUA

Karrika Nagusia 11, Tfnoa: 450116 DONEZTEBE

PICABEA

BOUTIQUE

Karrika Nagusia 5, Tfnoa: 450207 DONEZTEBE

APEZTEGIA BURDINDEGIA

Besta on batzuk opa dizkizuegu

Tfnoa: 45 01 66 - DONEZTEBE



ZALDUA

*Juantxo San Miguel*
**Kalefakzioa eta argindarra**
**Iturgintza**
Tfnoa: 45 08 66 DONEZTEBE

RUIZ MOBLEAK
*Opari eta dekorazioarako artikuluak*
Merkatarien karrika 16, Tfnoa: 45 01 10 DONEZTEBE

**RUIZ OKINDEGIA**
**Autozerbitzua**
Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 45 00 37 - DONEZTEBE

ALVARO OLAIZOLA
Monte Viejo ardoak eta Keler zerbezak
Edari banatzailea
Karrika Nagusia 13, Tfnoa: 450699 DONEZTEBE

Nerea
BESTA
ZORIONTSUAK
PASA
ITZAZUE
Oinetakoak
San Miguel 2, Tfnoa: 45 03 82 – DONEZTEBE

Beatriz
ILEAPAINDEGIA
San Miguel, 450922 - DONEZTEBE
Besta
ederrak
pasa
- Ileapaindegirako ordua eskatu
- Solarium-a
- kalitateko perfumeak
- Bitxitegi fina

# SALDIAS



**Larunbata, ekainak 20:**
**8etan** Altxaferua eta Baztanzopak. **12etan** BOXEO (6 konbate), ondoren dantzaldia.
**Igandea 21:**
**8etan** Kalejira; **11etan** Meza; **12etan** Aizkor-apostua (Etxeberria - Mindegia); **6etan** Pilota partiduak infantil *(Goizueta-Otxandorena, Atxa-Olagueren kontra)* eta helduetan *(Sanz-Taberna, Apezetxea-Apezetxearen kontra)*; **Arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.
**Astelehena 22:**
**9etan** kalejira eta ALZUGARAI Trikitilariak; **12etan** Herriko Mus Txapelketa; **5etan** Plater Tiroketa (herritarrentzat); **6etan** Jolasak haurrentzat-Pelota: *Irigoien-Iparragirre, Salaberria-Mariezkurrena*ren kontra; **Arratsalde eta gauez** MODESTO.
**Asteartea 23: San Juan Eguna**
**9etan** Kalejira; **12etan** Meza Nagusia; **1etan** Pilota partiduak: *(Mitxeo-Baleztena, Nagore-Satrustegiren kontra)*; **5etan** Dantzariak, Goizuetako Umore Ona taldea; **Arratsalde eta gauez** MODESTO.

Beñardo San Miguel eta Esther Escudero
TAXIA ETA GARRAIOAK
Elizagibela 3, 2. A – Tfnoa: 450865 - DONEZTEBE

KAMAMILA
DENDA NATURISTA
❊ Mediku kontsulta naturista
❊ Sauna (ordua eskatuz) eta masajista
Merkatarien karrika, 2. Tfnoa:451 528 - DONEZTEBE

ZUBIKOA LIBURUDENDA
Nagusia 5 – Tfnoa: 450295 - DONEZTEBE

OSTIZ ETXEA
Zapatadenda – Papertegia – Estankoa
Parrokia 17 – Tfnoa: 450289 - DONEZTEBE

EZKURRA ERRETEGIA
Txuleta eta bakailuan espezializatua
Merkatarien karrika 31, Tfnoa: 45 00 79 - DONEZTEBE

MARIA JESUS
Frutak eta barazkiak
Intzakardi 5 - DONEZTEBE

Bear Zana Pentsuak
Intzakardi 10, Tfnoa: 45 00 31 - DONEZTEBE

ARREGI
OINETAKOAK
Karrika Nagusia 21, Tfnoa: 45 02 10 - DONEZTEBE

## ITUREN

# Aurtizko ostatua berriro subastan ateriko da

Udala ez dago konforme aurreko adjudikazioarekin

IBAN ISASI

Uztailaren 6an adjudikatuko da berriro ere Aurtizko ostatua. Dirudienez, Udala ez zegoen konforme aurreko adjudikazioarekin eta berriro subastara atera du. Informazio gehiago lortzeko Udaletxera jo ezazue.

### AEKren barnetegia konfirmatuta

Ekainaren 6an arratsaldeko 6etan hasitako plenoan aztertu ziren puntuetariko bat barnetegiena zen. Azkenean, aurten ere herrian izanen ditugu euskara ikasleak.

❐ **Bi hilobi** berriren eraikuntza onartu dute bai Udalak eta bai elizak ere. Bata Quintina Azpirozentzat eta bertzea Izebenea etxearentzat. Eraikuntza hauek egin daitezen lehengoko hilobi zaharrak kendu eta hauen eraikuntza eginen da.

❐ **Xorroxin** irratiari ez zaizkio bidaliko aktak, azken udal plenoan erabakitakoaren arabera.




❐ **Aurten** Bianan ospatuko den Nafarroa Oinez-entzat 15.000 pezetatako dirulaguntza.

❐ **Udalak** Nafarroako txirrindulari itzulian meta bolante bat jarri zuen. Honen irabazleak, 35.000 pezetako saria lortu zuen.

## ZUBIETA

JUAINAS

Ederra Eguraldia! Herdoiez beteko gara, martxa honetan! Urrutira joan gabe, eskolako haurrak jaso dute errurik gabeko faena. Ekainaren 9an barkoz ibiltzera joan ziren eta itxaso aurrean bukatu zuten, trenez ibili ziren eta arront ongi pasatu zuten. Baztanen San Primo deitzen duten egunean, hain zuzen, berrogei eguneko eguraldia markatzen duena... Trinitate Eguna?

Besta berrin Pello Oscozeri emanen diogu despedida, Irungo eta Zubietako udalak, hango ostatuan. Zoriondu beharko dugu, alaba jaio bait zaio - emazteak eman dio, hobe esana- eta deskantso ederra hartuko bait du, besterik ez bada ondarreko urteko udalgirotik aldenduz.



Fiestaz ari garanez, kostata, Patziku eta Iñakok, jo ta ke arituz, telefonika aberastuz eta poltsikoa mehetuz, lortu omen dute amabirjinetarako falta zen musikeru taldea. Musikeruk musikerak direla aditu dut, beti Prest. Izenekoak, gainera:Uy, uy, uy!

Seriostasunara jo dezagun! Hor nonbaiten, Europatik, edo, iniziatiba berriak bulkatu nahiez diru laguntzak emateko plangintza bat osatzea nahi dute, Oronoz-en, 17an eta 24an gauzak argitzeko arduradunak egonen direlarik. Dena den, hau plazaratu orduko bilera bat egina egonen delakoan nago, horrek duen ezaugarriak esplikatzeko.

Azkenik, gauzak okertzen ez badira, hilabete hontako ondarreko larunbata eta igandean, eta hurrengoko lehendabizikoetan, estalpean, erakusketa bat egonen da, Herri Kirolei buruz Carmelo Alcala-k ateritako fotografiz osatua.

## LEITZA

# Herriko obra haundien bigarren zatiarentzat aurtengoz ez dago dirurik

### Itxoin egin beharko dute Amazabal, Patxi Arrazola... auzoek

ANTTON ERKIZIA

Miguel Sanz, Diputazio lehendakari-ordea denarekin Udalak izandako bileratik hauxe atera zen garbi: aurtengoz ezin izanen dela herriko obren bigarren fasearekin hasi, baldin eta azken orduan beste herriren batzuk ez badute atzera egiten beren proiektuekin, eta haientzako dagoen dirua guri pasa. Honek esan nahi du: Manuel Lasarte, Huarte gotzaia, San Jose, Elbarren, Amazabal, Patxi Arrazola... auzoek itxoin egin beharko dutela, behintzat datorren urtea arte.

Beste bat, Aresoko bidegurutzetik Leitzarainoko bidea zabaldu eta zuzentzea eskatu zion berriki Udalak Gobernuari, hau da, irteera-sarrera on bat ematea herriari autobideara. Gobernuaren erantzuna: ezetz, ez dagola dirurik hortarako.

### Plan "Leader"...

Europako Merkatu Batuak miloi mordoa bidaliko omen du, mendialdeko lurraldeak garatzen laguntzeko. "Plan Leader" izenarekin ezagutzen da eta plan honen helburua: aberastasun eta hobekuntzarik ekar dezakeen asmo haundi eta txikiak diruz laguntzea. Ba al duzu honen berri? Burutan dabilkizun zure proiektu hori plan hontan sartzen den ala ez den sartzen jakiteko, informa zaitez Udaletxean.

### Zestau I, Migelikok

...omenaldi beroa jaso zuen lehengo igande hortan, Leitzako herriak eskeinia. Eta ***ttipi-ttapa***k ere berea eskeintzen dio, ttipia, hogei eta gehiago urtez erremontista profesionala izan den kirolari haundiari.

### Aurrera ekipoek...

ere aurtengo liga-txapelketa bukatu dute. Ez Barcelona bezain ongi, baina tira: haundiak bosgarren gelditu dira, eta jubenilak ere bosgarren.

Bat bukatu eta bestea hasi: "Inguruarte" futbol txapelketa ospetsua hasi berria da. 14 ekipo, fitxaje ospetsuak eta Xaharren aldeko trabesak.

### San Juanak, aizu!

Eta bi pesta egun iragarrita dagoeneko. Patagonia eta Hertzainak ekainaren 20an, IKAk antolatua. Eta 23an, herri afaria plazan (Aurrerak) eta Ortzadar (Kultur taldeak).

### Tour de France...

Euskalerrian barrena dabilen artean euskararen erabilera eskatzen zuen Euskal Herrian Euskaraz erakundearen mozioa ahobatez onartu zuen Udalak.




*Hogei eta gehiago urtez erremontista profesionala izan da Zestau I*

### Biblioteka, liburutegia...

datorren astetik goizez izanen da irekia. Ordutegi berria: 9etatik 1etara, 4 ordu egunero (lehen 3). Hortaz gain, negu partean larunbata goizez ere irekiko da.

### Graduado eskolar euskaraz...

aurtengo ikastaroa bukatu da, eta oso ongi. Datorren urterako, informatu zaitez Udaletxean, gusto baduzu...



*Mitxelaundiren ahariak fama haundia hartzen ari da inguruotan, oraindikan ez baitu aposturik galdu*

GOIZUETA

# Andoni Etxenikek eskuratu zuen kontzejalaren kargua

## Bestalde, 47 lan aurkeztu ziren guzira Bertso Paper lehiaketan

ESTEBAN AROZENA

Otsailean Javier Huizi "Alduntzin" hil zenez geroztik, zinegotzi aulki bat hutsik egon da maiatzaren 30a arte, egun horretan udalak ospatu zuen plenoan eskuratu bait zuen Andoni Etxenike Elizegik HBren zerrendako ordezkari bezala tokatzen zitzaion postua. 23 urteko mutil honetaz esan behar da, gazte mugimenduaren barrenean ibili dela beti, eta kontzejala izateaz gain, Umore Ona elkarteko batzordekidea dela.

### Bertso Paper lehiaketa

Partaidetza aldetik behintzat arrakasta ikaragarria izan du Bertso Paper Lehiaketaren aurtengo edizioak, 3 kategori edo mailen artean 47 lan aurkeztu bait ziren, hauetatik gehienak 12 urte arteko haurrak zirelarik.



*Bertso paper Lehiaketan, Maite Ortigosa izan zen garaile helduetan*

Helduen mailari dagokionez, Maite Ortigosa suertatu zen garaile "Emakumea" gaitzat hartuta egindako bertsoekin. Lore Huizik eskuratu zuen bigarren postua. 12-16 urtekoetan Xabier Legarretak "Soldaduskari" eta Oihana Eskuderok "Aitona zaharrari" jarritako bertsoek lortu zituzten lehen eta bigarren sariak. 12 urte artekoetan, berriz, Eneritz Arozena izan zen lehena "Telebista" lanarekin, Eider Loiarte "Goizuetako obrak" lanarekin bigarren sailkatu zelarik. 200 lagun elkartu ziren sari banaketa hauek zirela eta antolatu zen bertso jaialdian.

❒ **Urriaren 11an** Bianan ospatuko den "Nafarroa Oinez"ek 25.000 pezetatako dirulaguntza jasoko du gure herriko Udaletik, bertan ahobatez hartutako akordioaren ondorioz.

ARESO

# Kale guziak asfaltatu dira herrian berriki

JUANA MARI SAIZAR

Duela hilabete batzu hasi ziren obra hauek eta oraintxe bukatu dira. Eguraldi txarra egiten duenean lasai ibili daiteke kale guzian zehar, oinak bustitzeko beldurrik gabe, inon ez bait dago putzu bat ere. dena ormigonez beterik bait dago. Kotxeak ibiltzeko bide berri bat egin da herri erdian, kale bat edo beste zabalduz eta pareta berria egin da farolaz argitua egongo den kale horren zehar. Obra hauek hasi baino lehen plazara jeisteko sarrera batek eskailerak zituen. Orain , obrarekin batera, ormigonezko ranpa bat gelditu da.

❒ **Ekainaren 6an** Iruñean ospatu zen katekesiaren eguna eta lehenengo aldiz Aresoko representazio bat izandu zen. Oso ongi pasatu zuten, antzerkiak, abestiak eta trikitilariak eta bertsolariekin jaialdi polita antolatu omen zuten. Aresoko 12 umek eta Eva zuten monitora bezala.

❒ **Maiatzaren 31an**



Aralarko San Miguel aingeruari ongietorria egin zitzaion baina jende gutxiago biltzen da urtetik urtera. Indarra galtzen ari ote da Aralarko aingerua?

## BAZTAN

# Erreka garbiketa lanak 83 milioi kostatuko da

Bertzalde, Leader programaren aurkezpena egin zen hilaren 10ean

JOSEBA

Balleko Etxeak aurten hasi nahi ditu Berroeta eta Elizondori dagozkien erreka garbiketa eta saneamendu lanak.

1992ko Herrietako Azpiegitura Obren Plangintzan sartuta dauden lan hauek, 9 milioietako aurrekontua dute Berroetan eta 74 milioi Elizondon. Udalbatzak ahobatez onartu zuen lan hauei ekitea, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean izan dadila eskatuz.



*Baztango erreka guztiak ez daude, Erratzuko Xorroxin bezain garbi*

### Leader Planaren...

aurkezpena egin zen hilaren 10ean. Bertan izan ziren Patxi Oiartzabal Baztango alkatea, Jose Mª Aierdi, Cederna-Garalur erakundeko lehendakariordea, ITGVko Isabel Elizalde eta UAGNko Begoña Sanzberro. Hilaren 17an, Mugairin eman zen gai honi buruz informazio gehiago.

### Etxebizitza sozialak martxan

Lurraren berkalifikazioa egiten ari dira eta hilabete honetan biltzar nagusian erabaki zehatzagoak hartuko dituzte. Etxebizitzak Elizondon, Mugairin eta agian, Urdazubi eta Erratzun, eginen dira.

### Inpakto ekologikoa

Nafarroako gobernuak 9 milioi gastatuko ditu Belateko tunelak sortuko duen inpakto ekologikoari buruz ikerketa lan bat egiteko. Normalki, autobide eta autopistetan egiten da baina oraingoan ingurugiroak duen aberastasuna ikusirik egitea erabaki du.

### ETBn aldaketak

ETBk hobekuntzak eta aldakuntzak egin ditu Legaten eta Gorramendin. Azken honetan argi sarrera berri bat ere egin behar dute. Kanalak ere aldatu dira eta une honetan horrela daude: Gorramendin; ETB-1 42an jarraitzen du, ETB-2 65tik 25era. Legaten, ETB-1 25tik 22ra eta ETB-2 27an segitzen du.

### Mendi nekazariek...

laguntza eskariak ekainaren 30a arte egin dezakete Nekazal bulegoetan. Horretarako, Nortasun agiria, NIF, esnea produzitzen badute litro esne kopurua, kontu korrente zenbakia eta nekazal segurantza ordaintzen dela agertzen duen agiria aurkeztu beharko dira.

### ttipi-flash

❒ **Lekarotzeko** piszinara Iruritatik garraituko dute ura, kloratzeko sistema ere paratuko da, oraindik gastuak zehaztu gabe badaude ere. Uztailan irekiko da eta subastan adjudikatuko da.

❒ **Udaletxeak** Xabier Landaren "Pelotaria" 50 liburu erosi ditu. Bakoitzak 5.000 pezeta balio ditu, edizio artistikoan argitaratuak izanik.

❒ **Gaupasen** ordutegi laburpenen ondorioz, Herriko Etxeak 100.000 pezetako dirulaguntza emanen dio Berroeta eta Almandozi. Ostatuen ordutegia herriko bestetan 5ak arte da.

❒ **Baztan** kanpoan ezagutarazteko, Udalak kanpaina publizitarioak antolatu ditu, hemengo ostalaritzarekin batean, turistikoki bultzada bat emateko bailarari.

❒ **Nafarroako** Itzulia arrakastatsua suertatu da, bi sektoretan banatuz. Udalak, 650.000 pztako laguntza eman du eta datorren urterako prest.

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
Arropak, telak, anbientadore naturalak, gena, bainugatzak, intziensoa, larruak...

## BAZTAN

# Baztandarrak nagusi zonaldeko I. Gasna Lehiaketan

29 partaideren artean, hiru lehendabiziko sariak Elizondo, Ziga eta Amaiurrera etorri ziren

Txapeldun suertatu zen Mª Jesus Larretxea Elizondotarrak, zortzi urte daramatza gasna egiten eta bertze gasna lehiaketetan aurkeztu izan da, Etxarri Aranatzen eta Basaburuan, bertzeak bertze. Bere ustez, "*hemengo gasnagileek oraindik aunitz ikasteko daukagu, Etxarrin eta hobeak egiten bait dira*". Etxalarko gasna lehiaketa arras egokia iruditzen zaio Mª Jesusi, batez ere, "*hemengo gasnari irtenbidea emateko*".



## Erratzuko bestak

Hilaren 27tik 30era burutuko dira.

**Larunbatean,** hilak 29, rock kontzertua eta 12etatik goiti dantzaldia. **Igande** goizean txirrindulari laisterketa Izpegiraino eta arratsaldean haurrendako antzerkia eta pilota partidoak. Arratsean, musika.

**Astelehenean, San Pedro** eguna: 11etan Meza Nagusia eta herriko dantzarien emanaldia. Arratsaldean pilota partidoak.

**Asteartean,** herrian zikiro-jatea eta Gorostapolo auzoan pilota partidoak eta soinua. Egun guzietan, Arizkungo Felix eta Javier txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira.

AMAIUR
10. URTEURRENA
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE
5 urtetako garantia sukaldetan
AENORek homologatua
AENOR
Producto Certificado






● Sukaldeak
● Bainuak
● Mahaiak - aulkiak
● Elektrogailuak:
Miele
EFF
AEG
Fagor

## ZUGARRAMURDI

# Aurtengo gau-pasa ekainaren 20an ospatuko da

Izan, Kanka, Beltzez eta Txakur musika taldeek parte hartuko dute

MARGARI eta KORO

Urtez urte Zugarramurdin ospatzen den gau-pasa, aurtengoan, ekainaren 20an eginen da.

Gazteek, Udalarekin eginiko bileretan, garbi utzi nahi izan dute gauza bat: besta honetan biltzen diren dirua herriarendakoz denez, besta honetan egiten den lana ere herritar guztien artean egin beharko dela. Hortaz, etxe bakoitzetik bat bederen (zahar edo gazte, berdin), lanerat etortzea auzolan modurat eskatzen da, kehendik izena emanta.

Bertze aldetik, "Izan", "Kanka", "Beltzez" eta "Txakur" musika taldeek emanen digute dantzaldia, eta beti bezala ere hor izanen ditugu sorginak eta joaldunak.

### 32 gazte konfirmatu ziren

Maiatzaren 31an konfirmatuak izan ziren herriko 32 gazte (14 urtetatik 18 urtetarainoko gazteak).



MARGARI

Ondoren, (besta ongi akitzeko) "Armua" jatetxean bazkaldu zuten gehienak, umore ederrean.

RADIO BIDASOA

* Zure bideo erreportaiekin pozik zaude?
* Atera nahi diozu etekin haundiagorik zure kamarari?

Radio Bidasoak ikastaro batzuk egiteko posibilitatea eskeintzen dizu, zure erreportaiak profesionalak bezala egin ahal izateko.

Orduaz hitzegin dezakegu, oinarrizko maila:
Grabaketa eta montaia

Kantonberri 1
BERA ☎ 630377

KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENEKO SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:
Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ
☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

ERRATZU OKINDEGIA
zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARLA ARDOTEGIA
Ardo botilatua eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

«ZALDUBI» SUKALDE MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

## URDAZUBI

# Herriko bestak Maiatzaren 31ean akitu ziren

Pala txapelketan Angel Larralde urdazubitarra eta Pierola almandoztarra txapeldun

ALIZIA OLAIZOLA

Maiatzaren 27an hasi ziren bestak eta 31ean akitu. 27an herriko gazteak, indianoBaitan afaria eta dantzaldia izan zuten. Biharamunean Meza Nagusia eta aperitiboa Ainhoako klikarekin. Arratsaldean pilota partiduak eskuz. Lehenik haundiak eta gero benjamin mailakoetan, Patxi Jaurena, Urdazubikoa eta Mikel Argarate, Orabidekoa, txapeldunak suertatu ziren 22-8. Ondotik Atsulaiko dantzariak izan ziren. Ortziral goizean eta arratsaldean Haurren jostetak izan ziren (Gaztelu haizatua eta zezen mekanikoa), eta txokolatada. Herriko Gazteak dianak Dantxarineako auzoan, Modestoren konpainian izan zuten. Larunbat goizean, Urdazubiko Pala Txapelketaren finala jokatu zen. 2. mailan Etxeberria, Amaiurkoa eta Inda Erratzukoa txapeldunak geratuz 50-36. 1. mailan Angel Larralde, Urdazubikoa eta Pierola Almandozkoa izan ziren txapeldunak 50-32. Arratsean Zikiro Jatea izan zen. Igande arratsaldea Euskal Indar Probak, Dantzariak eta Lizaso eta Murua bertsolariak aritu ziren Amorenak gaia jarriz. Aste betez Benidorrera joateko egindako rifa, Agustin Txipiri tokatu zitzaion eta Musika Ekipoa, berriz, Mª Cruz Plazari. Egunero dantzaldia Drindots-ekin.



### Zabala eta Juarez garaile motocrossean

Ekainaren 7an Moto Crossa izan zen Alkerdi auzoan arratsaldeko 4etan, Nafarroako Txapelketarako baliagarria eta Peña Motorista Dos Ruedas antolatzaile izanik. Euri pixka bat egin bazuen ere, lurra kondizio onean zegoen eta aro atsegina pilotoen esfuertzoarendako.

Seniorretan, Mikel Zabala izan zen garaile Estephanne Dasse eta Mikel Purroyren aintzinetik. Juniorretan, berriz, Juarezek irabazi zuen, Velez eta Lajus-eri aurre hartuz.

NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA
MENUAK eta KARTA
San Andres 1 • NARBARTE

FOTO MENA ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55 – Santiago 40
ELIZONDO
Eta orain, zure koloretako argazkiak ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

Juan Meoki naiz:
Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara
45 20 35
eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.
Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

PATXI BENGOETXEA
ERA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK
Tfnoa: 45 23 36
ELIZONDO

# PATAGONIA
# +
# HERTZAINAK

## ROCK GAUA

**Noiz: Ekainaren 20an,**
**Gaueko 10,30etan**
**Non: Leitzako Herriko Plazan**
**Sarrera: 800 pzta.**

## 90.000 Watio
## Euskararen alde

**Antolatzailea: Leitzako Euskaltegia**

ika
ikastari

[redacted]

## EZKONTZAK

**Lukas Eizagirre Alzaga** eta **Maritxu Zubieta Manterola**, Irun eta Lesakakoa, maiatzaren 30ean.

**Isabel Serrano Ortega** eta **Jose Alfredo Lafuente Urdiales**, Leitzakoak, ekainaren 14ean.

**Mª Asuncion Etxarri Arano** eta **Aitor Eizagirre Uria**, Leitza eta Zarauzkoa, ekainaren 13an.

**Mª Pilar Migeltorena Etxegia** eta **Gonzalo Igoa Goikoetxea**, Doneztebe eta Berakoa, maiatzaren 30ean.

**Mª Carmen Ganboa Zabalo** eta **Jose Ignacio Maritorena Larralde**, Doneztebe eta Berakoa, maiatzaren 6an.

**Pedro Maylin Mindegia** eta **Ines Larrui Aloña**, Doneztebe eta Elizondokoa, maiatzaren 6an.

**Jose Mª Alberro Etxandi** eta **Mª Dolores Etxandi Uriz**, Gartzaingoak, maiatzaren 30ean.

## JAIOTZAK

**Unai Gurrutxaga Errandonea**, Lesakan, maiatzaren 29an.

**Ane Oiartzabal Larralde**, Lesakan, maiatzaren 29an.

**Andoni Goienetxe Lizarza**, Amaiurren, ekainaren 2an.

**Aitor Telletxea Etxenike**, Beintza-Labaienen, ekainaren 7an.

**Maitane Altzuguren Arregi**, Etxalarren, maiatzaren 15ean.

## HERIOTZAK

**Domingo Pikabea Dukaz**, Urrotzen, maiatzaren 24ean.

**Xan Mitxelena**, Saran, ekainaren 6an, 68 urte.

**Joset Etcheverri Garai**, Saran, maiatzaren 27an, 61 urte.

**Jose Mari Perurena Sagastibeltza**, Leitzan, maiatzaren 14ean, 85 urte.

**Mª Jesusa Torres Mendiburu**, Elizondon, maiatzaren 28an, 77 urte.

**Jose Valentin Plaza Mendiburu**, Lekarotzen, maiatzaren 30ean, 76 urte.

**Juan Martin Azkarraga Sarratea**, Elizondon, ekainaren 3an, 83 urte.

**Matilde Santos Villafranca**, Elizondon, ekainaren 6an, 88 urte.

*OLARI*

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

BERAKO LABIAGA IKASTOLAK:

*2 irakasle lizentziatuak behar ditu datorren kurtsorako:*

- 1 zientzietako tituluduna
- 1 Euskal Filologia, ala Erdal Filologia + EGA duena

*Bidal itzazue zuen kurrikulunak uztailak 6 baino lehen zuzenbide hontara: Labiaga Ikastola; Altzate 8; 31780 BERA Tfnoa: 630 172*



Atrezzo

ZUBIAURRE KALEA 1
SAN MIGUEL AUZOA - IRUN
Tfnoa. 61 51 43

ARTE LAMINAK, POSTERRAK eta POSTALAK

MARKOAK

# Zein dira gehien erosten ditugun egunkariak?

***Herriz herri bildutako datuen arabera, igandetan dexente egunkari gehiago saltzen dira astegun normal batetan baino***

Segidan aurkezten zaizkizuen datu guzi hauek biltzeko, bi bide jorratu ditugu nagusiki: batetik, herrietako salmenta lekuetan emandako datuak eta bertzetik, kartero eta postariek emandakoak Bertzalde, datu horiekin bi kuadro osatu ditugu: astegun normal batetako salmenta kopuruekin bata, eta igandetako salmenta kopuruekin bertzea.

Ikusiko duzuenez, eskualde batetik bertzera diferentzia nabarmenak ageri dira; ez bakarrik markarik salduenetan, baita biztanlegoaren arabera dagoen irakurketa indizetan ere; hau da, 1.000 pertsoneko erosten den egunkari kopurutik ateratzen den indizean, alegia. Zonaldeari aplikaturik, mila pertsoneko 139 egunkari saltzen dira(‰139).




### BAZTANALDEA

'Diario de Navarra' dugu egunkaririk salduena, saltzen diren guzien erdia pasatuxea. Irakurketa indizeari dagokionez, astegunetan ‰ 88koa da (mila pertsonako 88 egunkari) eta igandetan kopuru hori ‰ 129tara altxatzen da. Ageri denez, jendeak igandetan aukera gehiago du kazeta erosteko. Herri ttikietan, normalean karteroak dira banaketaz arduratzen direnak.

### BORTZIRIAK

Gipuzkoarekiko hurbiltasunak badu eraginik. Herri guzietan 'Diario Vasco' dugu egunkaririk salduena, saltzen diren hirutik bi DV dira ia-ia. Irakurketa indezeari dagokionez, astez ‰ 134 eta igandetan ‰ 164koa.

### LEITZALDEA

Hiru herrietan 'Egin' da egunkaririk salduena, nahiz eta 'Diario de Navarra' eta 'Diario Vasco'ren salmenta kopuruak asko hurbiltzen zaizkion.

Bestalde, Leitzaldean dugu zonalde osoko irakurketa indizerik bajuena; astegunetan ‰ 69 eta igandetan ‰ 103koa.

### MALERREKA

Bakarrik hiru herritan eros daiteke egunkaririk. Igandetan, halere, Doneztebeko Blas, herri guzietatik pasatzen da saltzera. Salduena 'Diario de Navarra' dugu. Irakurketa indizeari dagokionez, astegunetan ‰ 77 eta igandetan ‰ 132koa.

### SARA

'Sud Ouest' dugu Saratarrek gehien erosten duten kazeta. Irakurketa indizeari dagokionez, aldiz,zonaldeko altuena da bertakoa, bataz bertze‰ 177koa.




## *Egunkarien bataz-besteko salmenta kopuruak Astegunetan*

| | DIARIO de NAVARRA | NAVARRA HOY | DIARIO VASCO | EGIN | DEIA | EGUNKARIA | SUD OUEST | Estatuetakoak | GUZIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BAZTANALDEA...... | 420 | 123 | 88 | 64 | 22 | 18 | 0 | 36 | 771 |
| Baztan (*)......... | 392 | 119 | 88 | 61 | 22 | 18 | 0 | 36 | 736 |
| Urdazubi.......... | 15 | 4 | 0 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 22 |
| Zugarramurdi... | 13 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 13 |
| BORTZIRIAK........... | 127 | 36 | 730 | 156 | 22 | 38 | 0 | 24 | 1.133 |
| Arantza............ | 3 | 0 | 9 | 5 | 0 | 3 | 0 | 0 | 20 |
| Bera................. | 48 | 14 | 427 | 66 | 6 | 9 | 0 | 8 | 578 |
| Etxalar............. | 15 | 4 | 38 | 12 | 0 | 2 | 0 | 0 | 71 |
| Igantzi.............. | 11 | 0 | 36 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 50 |
| Lesaka............. | 50 | 18 | 220 | 70 | 16 | 24 | 0 | 16 | 514 |
| LEITZALDEA.......... | 77 | 9 | 78 | 127 | 10 | 10 | 0 | 11 | 322 |
| Areso............... | 4 | 1 | 1 | 10 | 2 | 0 | 0 | 0 | 18 |
| Goizueta.......... | - | 0 | 12 | 36 | - | - | 0 | 0 | 48 |
| Leitza............... | 73 | 8 | 65 | 81 | 8 | 10 | 0 | 11 | 256 |
| MALERREKA(*)...... | 187 | 42 | 105 | 45 | 5 | 15 | 0 | 7 | 406 |
| Doneztebe....... | 159 | 25 | 85 | 32 | 3 | 12 | 0 | 5 | 321 |
| Ituren............... | 0 | 0 | 0 | 7 | 0 | 2 | 0 | 0 | 9 |
| Sunbilla............ | 28 | 17 | 20 | 6 | 2 | 1 | 0 | 2 | 76 |
| SARA....................... | 0 | 0 | 4 | 16 | 3 | 2 | 260 | 80 | 365 |
| Guzira | 811 | 210 | 1.005 | 408 | 62 | 83 | 260 | 158 | 2.997 |

## *Egunkarien bataz-besteko salmenta kopuruak Igandetan*

| | DIARIO de NAVARRA | NAVARRA HOY | DIARIO VASCO | EGIN | DEIA | EGUNKARIA | SUD OUEST | Estatuetakoak | GUZIRA | TTIPI TTAPA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BAZTANALDEA...... | 619 | 172 | 118 | 87 | 25 | 20 | 0 | 81 | 1.122 | 1.268 |
| Baztan (*)......... | 591 | 168 | 118 | 83 | 25 | 20 | 0 | 81 | 1.086 | 1.120 |
| Urdazubi.......... | 15 | 4 | 0 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 23 | 92 |
| Zugarramurdi... | 13 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 13 | 56 |
| BORTZIRIAK........... | 162 | 36 | 909 | 156 | 29 | 37 | 0 | 56 | 1.385 | 1.651 |
| Arantza............ | 3 | 0 | 9 | 5 | 0 | 3 | 0 | 0 | 20 | 163 |
| Bera................. | 63 | 14 | 455 | 71 | 4 | 8 | 0 | 30 | 645 | 687 |
| Etxalar............. | 20 | 4 | 85 | 20 | 9 | 6 | 0 | 0 | 144 | 163 |
| Igantzi.............. | 11 | 0 | 50 | 5 | 0 | 0 | 0 | 0 | 66 | 134 |
| Lesaka............. | 65 | 18 | 310 | 55 | 16 | 20 | 0 | 26 | 510 | 504 |
| LEITZALDEA.......... | 137 | 21 | 125 | 153 | 12 | 14 | 0 | 23 | 485 | 756 |
| Areso............... | 4 | 1 | 1 | 10 | 2 | 0 | 0 | 0 | 18 | 49 |
| Goizueta.......... | 0 | 0 | 4 | 36 | - | - | 0 | 0 | 40 | 152 |
| Leitza............... | 133 | 20 | 120 | 107 | 10 | 14 | 0 | 23 | 427 | 555 |
| MALERREKA(*)...... | 297 | 95 | 190 | 62 | 7 | 15 | 0 | 27 | 693 | (*)1.004 |
| Doneztebe....... | 269 | 45 | 160 | 44 | 5 | 12 | 0 | 25 | 560 | 239 |
| Ituren............... | 0 | 0 | 0 | 10 | 0 | 2 | 0 | 0 | 12 | 117 |
| Sunbilla............ | 28 | 50 | 30 | 8 | 2 | 1 | 0 | 2 | 121 | 155 |
| SARA....................... | 0 | 0 | 4 | 16 | 3 | 2 | 260 | 80 | 365 | 125 |
| Guzira | 1.215 | 324 | 1.346 | 474 | 76 | 88 | 260 | 267 | 4.050 | 4.804 |

JOXE MANUEL

# Narciso Saralegi leitzarra garaile Nafarroako harri altxatze txapelketan

***Patxi Larretxea arraioztarrari altxaldi bakar bategatik nagusitu zitzaion***

Narciso Saralegi leitzarrak eskuratu zuen berriz ere Nafarroako harri jasotzaile hoberenari dagokion txapela 100 kilotako kategorian, maiatzaren 31an Elizondon egindako saioan.

Narciso Saralegik 27 altxaldi eman zizkion bi minutotan 100 kilotako harriari eta bigarren gelditu zen Patxi Larretxeak (argazkian) berriz, 26. Beraz, emozioa azken altxaldira arte iraun zuen. Aipatu behar da, biak ere orain arteko Nafarroako errekorra gainditu zutela. Hirugarren postuan, Federico Ariznazaleta sailkatu zen. Honek suerte txarra izan zuen, harria bi puxketan xehetu bait zitzaion. Elizondon bildutako jendetzak txalo zaparrada izugarria eskeini zien harrijasotzaileei, hauek erakutsitako ikuskizuna eskertuz.

Bertzalde, Elizondon bertan 640 kilotako sokatira txapelketaren bigarren erdifinala burutu zen, Amaiur, Bera, Basaburua-Baztan, Berriozar eta Lesaka taldeen artean, lehenbiziko hiruak finalerako sailkatuz. *ttipi-ttapa* hau zuen eskuetan izan orduko finala ere jokatu izanen da Sunbillan, hilaren 14ean, aipatutako taldeekin batera, Sunbilla, Gartzain eta Ultzamakoak arituz.



# Urdazubiko Motocross txapelketa jokatu zen ekainaren 7an

***Mikel Zabala seniorretan eta Oscar Juarez juniorretan irabazle***

Ekainaren 7an Moto Crossa izan zen Alkerdi auzoan arratsaldeko 4etan, Nafarroako Txapelketarako baliagarria eta Peña Motorista Dos Ruedas antolatzaile izanik. Euri pixka bat egin bazuen ere, lurra kondizio onean zegoen eta aro atsegina pilotoen esfuertzoarendako.

Senior mailan, lehen mangan Mikel Zabalak irabazi zuen Stephane Dasseren aintzinetik. Bigarren mangan alderantziz izan zen, lehen postua Dasserentzat eta bigarrena Zabalarentzat.

Junior mailan, Oscar Juarez nagusitu zen bi mangetan. Eskualdeko motocrosslariei dagokienez, Elizondoko Pello Zaldainek zazpigarren postua lortu zuen lehen mangan, Berako Natxo Burgetek bosgarrena bigarren mangan eta Arizkungo Esteban Zaldainek ere parte hartu zuen.



Urtero bezain ikusgarria izan zen aurten ere Urdazubiko motocross txapelketa

ERREMONTEA

# Patxi Etxeberria doneztebarra ia ia txapeldun Euskalerriko erremonte txapelketan



Patxi Etxeberria doneztebarra eta Lekunberri erremontelariek 40-39 galdu zuten Lezea eta Eizagirreren kontra joan den ekainaren 6an Euskalerriko erremonte txapelketaren finalean.

Berdintasun eta emozioz beteriko partiduan 39 eta 36 irabazten joan ondoren, azkenean galdu egin zuten.

Dena den, 26 urte dituen Patxi Etxeberriak bi sari irabazi zituen. Bata txapelketa osoko pilotari onenari emandakoa eta bertzea Nafarroako hoberenari.

Erran behar da, Doneztebeko Koteto Ezkurrak ere Euskalerriko txapelketa ona egin duela eta orain 18 urte dituen gazte honek (erremontista profesional gazteena da) etorkizuna ona duela kirol honetan.



# Beti Gazte taldeak Preferente maila galdu du aurtengoan

***Bertze hiru taldeak kategoriari eutsi diote***

Lesakako Beti Gazte taldea izan da aurtengoan eskualdeko taldeen artean maila galdu duen bakarra eta zazpi urtez Preferenten aritu ondoren, datorren urtean Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan jokatu beharko du. Maila berean jokatuko du, baita ere, Berako Gure Txokoa taldeak, bertze urte batez kategoriari eustea lortu bait du. Nafarroako ligetan jokatzen dutenak berriz, hobekixiago aritu dira aurten, bai Preferenten jokatzen duen Baztan taldea eta bai erregionaleko lehen mailan jokatzen duen Leitzako Aurrera taldea bortz lehendabizikoetan gelditu bait dira.

# Hamabostaldiko jokaldiak



**Koteto Ezkurra** 18 urteko erremontista doneztebarra.

Patxi Etxeberria bere herritarra finalera iritsi bazen ere, Kotetok ez zuen txapelketa txarra egin, koadroko erremontista gazteena izan arren.



**Beti Gazte** Lesakako Futbol taldea

Aurtengoan ezin izan dute Preferente mailari, 1985-86 denboraldiaz geroztik bertan egon ondoren. Azken minututan huts egindako penalti batek ere izan zuen zerrikusirik.

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Beran** edo inguruetan etxebizitza merke baten beharrean nago. 631136 (Elena).

• **Beran**, pisu hutsa alokatzeko bilatzen dugu. 630072 (Ana).

• **Eratsunen** txalet bat salgai. 3 solairu, 50 m$^2$ bakoitzean, bista onak. 943-615069.

• **Oronotz-Mugairi** erdian 2 pisu eder saltzen dira prezio arras interesgarrietan. 453299.

• **Elizondon** pisua salgai, 3 logela, jangela, sukaldea, bainua, bi balkoi eta telefonoa. 6 milioi pzta. 581001.

• **Apartamentu** bat alokatzen da 'La Manga del Mar Menor'en (Murcia). 3 logela. Abuztua eta irailan. (968) 267875.

• **Beran** egiten ari garen pisu berria salgai dago. 630332.

• **Beran** bajera alokatzen da. 4 metrotako altura. 630332.

## Lana

• **Zurgin** lanak eginen nituzke (kutxillatzea, zepillatzea eta barnizatzea). 635136 (P. Mendikoa). Etxalar.

• **17 urteko** neska batek haurrak zainduko lituzke Beran. 630516 (Maitane).

• **Neska** bat edozein lan egiteko prest dago. Tfnoa: 631224 (Pati).

• **Neska** bat interna bezala lan egiteko behar da. Tfnoa: 627542 (Nekane). Goizeko 10etatik 1etara.

• **Ingeniari** Teknikoa planoak eta proiektuak egiteko eskeintzen da. 580420 (deitu arratsetan).

• **Neska** bat edozein lan egiteko prest dago. Tfnoa: 631224 (Pati).

• **Dentista** laguntzaile eta aho-higienista praktikak egiteko eskeintzen da: 943-631224 (Belen).

## Salerosketak

• **Belarra** igotzeko elebadora motor elketriko haundiarekin salgai. 15 m. tubo ere baditu. 4532 68 (1etatik-5ak arte).

• **Sorteo** batetan tokatutako mendi-bizikleta, merke salduko genuke. Estrenatu gabea. 581023.

• **Lur eremu** edifikablea salgai Beran. Deitu 630664 tfnora lan ordutan.

• **Suzuki Lido** motoa, 49 cc.koa salgai. Tfnoa: 630343.

• **Behi** ernaria, nabarra, 2 urtetakoa salgai. Tfnoa: 450980 (Labaien).

• **Kawasaki** KX 80, 91kakoa salgai. Egoera onean dago. Tfnoa: 635220 (Joseba) Arratsetan.

• **Bizikleta** haurrendako salgai. Iturengo Aurtitzen, Aldategia etxea bigarren pisuan.

## Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10-1etara eta 5-8etara 637410ra .

• **Zugarramurdin** "Akelarre" Jatetxea alokatzen da. Deitu 599094 ☎.

• **Artzai zakur** (eskozes-euskaldun arraza nahastua) urte betekoa, etxe zakurrerako ematen da. Ikustera ere joan daiteke. Tfnoa: 514101 (Goizueta).

• **Iruñako** Salesianoetara egindako katekesi irteeran, motxila urdin bat jaso zen. 615048ra deitu.

## Harremanak

• **Zubietako** Natalirentzat: zorionik beroenak bere koadrilako lagunen partetik, nahiz eta berandu xamar izan. Zorionak. Ia noiz ospatzen dugun.

• **Aresoko** Uxue Goikoetxeari zorionik beroenak maiatzaren 27aren partez. Zure izeba Cristina.

• **Leitzako** Karajo Larralderi: zorionik beroenak zure iloba eta alaba Aneren partez. Muxu bat.

• **Nekane** Maiarentzat: ekainaren 4ean, urtebetetzea zuela eta, zorionak. Lagun on bat.

• **Leitzako** Javirentzat: 14. urtebetetzean zorionak bere guraso eta arreba Rocioren partez. Orain arte bezala estudiante ona izaten jarraitu eta muxu bat.

---

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: ..........

*ttipi-ttapa*
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

---

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK ..........

HELBIDEA ..........

HERRIA .......... Tfnoa: ..........

*ttipi-ttapa*
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188


ZALDUA

San Pedrotan
Elkartasunezko
jai giroan!

Euskadiko
Kutxa

CAJA LABORAL POPVLAR
LAN KIDE AVRREZKIA

Kajero Automatikoa erabili nahi duzula?
Orain errexagoa duzu. Zeure libretarekin erabil dezakezu



Beti bezala Doneztebarren zerbitzura
Orain ofizina berritu eta txukun batekin

Besta Onak pasa Doneztebarrak!

CAN
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA